

Donostian, beste behin, Bertako Produktuen Eguna izango da maiatzaren 10ean eta 11n



Donostian, **maiatzaren 10ean eta 11n, Bertako Produktuen Egunaren** bigarren edizioa egingo da, **Alkateordetzak antolatuta Donostiako Sustapenaren Guztiona Klusterraren** bitartez, nekazaritzako elikagaien inguruneko produkzioei balioa emateko helburuarekin. Hori dela-eta, jardueraprograma bat prestatu dute, parte hartuko duten hainbat erakunderekin, eta protagonista tokiko produktuak izango dira. Ostiralean eta larunbatean, **karpan handi bat jarriko da Donostiako Boulevard-ean**, eta, bertan, merkatua egingo da **36 bat posturekin**. Besteak beste, barazkiak, esnekiak, frutak, edariak, kontserbak, e.a. salduko dira, den-dena gure ingurunean ekoiztua. Gune horretan, halaber, 'Bertako produktuekin konprometituta' sariak banatuko dira; hau da, Donostiako profesionalak tokiko produktuari eskaintzen dioten dedikazioa eta egiten jakitea saritzen duena. Hiru kategoria sarituko dira: Donostiako ostalaritza-establezimenduak, saltokiak eta hotelak,

eguneroko lanean tokiko produktuak erabiltzen dituztenak, kontsumorako nahiz salmentarako.

Ekoizle, elkarte, merkatu, enpresa, ikastetxe ezberdinek eta abarrek parte hartuko dute egun hori erakusleihu bilakatzeko, Donostian estrategikoa izatera iritsi den sektorearentzat, **Londres edo Amsterdam** bezalako hiri handietako joera berriekin bat eginez. Punturik garrantzitsuena Boulevardean publikoarentzat jarritako karpa handia izango da, 36 erakusketarik osatutako merkatuarekin. Maiatzaren 10ean, ostiralean, 9:00etatik 20:00etara egongo da irekita eta maiatzaren 11n, larunbatean, 9:00etatik 18:00etara.

Ernesto Gasco Alkateordeak ondorengoa nabarmendu du: "aurten, Alkateordetzak Donostiako Bertako Produktuen Egunaren bigarren edizioa antolatu du, gure inguruneko profesionalen nekazaritzako elikagaiei herritarren artean balioa emateko egiten ari garen lanaren esparruan. Bi egunetarako jarduera eta ekimen mordoa programatu dugu, "Kilometro 0" produktua deiturikoarekin lan egiten duten sektoreko agente guztiekin elkarlanean, balio-kate osoa ezagutzera emanaz: ekoizleak, banatzaileak, saltokiak, hotelak, jatetxeak, merkatuak, ikastetxeak, e.a. Tokiko produktuak produktu paregabeak eta kalitate bikainekoak izateaz gain, ekoizten eta merkaturatzen dituzten inguruneko enpresen eta erakundeen lanaren emaitza ere badira, kontsumitzen dituzten herritarrenarekin batera".

Tokiko produktuak **San Martín** merkatuan egongo dira, eta jarduera ezberdinak egingo dira:

- Axular Lizeoko haurrek merkatua bisitatzea eta jarduerak egitea.
- Magoak eta animatzaileak.
- Merkatuan jan erosi duzuna, 'Mimo'k prestatuko dizu.
- Koktelei buruzko hitzaldia.
- Bertsolariak.
- Afaria Gastropote postuan.
- Bizimodu osasungarriari buruzko hitzaldia, smothies-ak tokiko produktuekin.
- Zurriola Ikastolako haurrek apaindutako saskien zozketa.

Ostiralean, hilaren 10ean, hiriko **ikastetxe eta ikastola** ezberdinek (Loreka Haurreskola, Salesianos Donostia, María Reina Ikastetxea, Zuloaga Haurreskola, English School, Mary Ward eta Jesuitak Donostia) beren jantokietan soilik tokiko produktuekin prestatutako menua emango dute, Askora enpresaren laguntzarekin.

Horrez gain, **Donostiako hotel** batzuek tokiko produktuekin egindako gosariak emango dituzte: Arrizul Hotela, Astoria 7 Hotela, Londres Hotela, Lasala Plaza Hotela, Maria Kristina Hotela, Monte Igueldo Hotela, NH



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

Collection Aranzazu Hotela eta Sagarlore. Halaber, Arrizul Hotelak tokiko produktuen dastatzea eskainiko die doan bezeroei maiatzaren 10ean, eta Amara Plaza Hotelak tokiko produktuekin egindako pintxoak eskainiko du maiatzaren 10ean eta 11n.

Jardunaldia osatzeko, **4 €-ko opari-txartelak banatuko dira merkatuan trukatzeko**, eta ospakizun honetarako espresuki diseinaturiko **oihalezko poltsa** banatuko da Donostiako Sustapenaren stand-an, karpan bertan.

Alkateordetzak, Donostiako Sustapenaren Guztiona Klusterraren bitartez, nekazaritzako elikagaien tokiko ekoizpena bultzatzen eta sustatzen du, sektorearen garapen ekonomikorako, kalitatezko lanpostuak sortzeko eta gure inguruneko ingurumena errespetatzeko lan egitearekin batera.

Alkateordetzak antolatutako Bertako Produktuen Eguneko erakunde kolaboratzaileak hauek dira: **Behemendi, Gipuzkoako Merkataritza Federazioa, Sareko, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea, Gipuzkoa Hotelak, Askora, Bretxa, San Martin Merkatua eta Diario Vasco.**



Hiri berri zailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus